

Info



> zerbitzu publikoak



Langile publikooi iruzurrik ez!

Enplegu Publikoaren lege propioa, parte hartzailea eta demokratikoa

Gaur, hilak 5, EAEko Funtzio Publikoko Mahai Orokorreko deialdia burutu da. Gai ordenean puntu bakarra: Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektuaren eztabaida. Gogoratu behar dugu irailaren 11ean Jaurlaritzak beste deialdi bat egin zuela aurreproiektuaren aurkezpenarako. Bertan aurreproiektu honekin gauzatu nahi dituen aldaketa nagusien nondik norakoak azaldu zizkiguten.

Gaurko bileraren hasieran ordezkartza dugun lau sindikatu nagusiok parte hartu dugu. LABek helburu nagusia finkatu zion gaurko bilerari: argitzea aurretik alde bakarrez finkatutako baldintzaren gabeko eztabaida eta negoziazio prozesuari heltzeko borondatea duen Jaurlaritzak; beti ere, prozesu horren erreferente nagusia herri honek behar duen enplegu publikoaren definizioa izanik. Hau da, LABentzat gaurkoa ez litzateke negoziatorako bilera bat, baizik eta negoziazio hori gauzatzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak dauden argitzeko bilera.

Baina gaurkoan Andres Zearreta Sailburuak argi utzi du eztabaida hori era bikoitz batean baldintzatuta gauzatu nahi dutela: batetik, Estatutik azken urteetan oinarrizko araudiak utzitako **joko zelai erabat mugatuaren barruan** eman nahi dutela baieztatu dute; eta bestetik, eztabaida honetan egiten diren ekarpenetatik **zeintzuk onartu eta zeintzuk baztertu beraien esku** dagoelarik, eztabaidaren ondorioz hurrengo bileran aurkeztuko duten behin betiko testuak gehiago sindikalaren babes jaso ezean ere, ez du hitzik ematen tramitazioa bertan behera utziko dutenik, eta beraz, babes sindikal nahikorik gabeko testua Gobernu Batzordera eta honen ondoren Legebiltzarrerara eramango ez dutenik. Zentzu honetan, LABek ez du ez gaitasunik, ezta borondaterik antzematen sakoneko eztabaidak emateko.

Estatu mailan PPK planteatzen duen oinarrizko araudia, erkidego autonomoan nola egokitu baino ez du buruan PNVk une honetan. Esandakoei erreparatu ezker, EBEP delakoaren garapena ez dela baizik eta lege propioa dela diotenean, **EBEP beraren euskal bertsio bat** negoziatu nahi dutenaz konturatu gaitzke. Errealista ez den ariketa egitea leporatu zaigu, baina gure ustez errealista ez dena da bertako errealitateari egokitutako eta bertako gehiago sozial eta sindikalak aldarrikatutako funtzio publikoaren moduko legea egin dezakegunik uste izatea, Espainiako funtzio publikoaren oinarrizko legea aintzat hartuz.

Gainera aurreproiektuak jasotzen dituen lerro nagusiak, LABek egin nahi duen sakoneko eztabaida horretan planteatuko lukeenaren kontrako norabidean kokatzen dira:

- Enpresa eremuan nagusitu nahi den kudeaketa eredua Zuzendaritza Publiko Profesionalaren irudi berriaren bitartez eremu publikoan txertatzea.
- Enpresa eremuan ere Lan Erreformatik planteatzen dituen EEei esparru publikoan bide ematea.
- Soldataren banaketa arbitrarioagoa eta desorekatuagoa bermatuko lituzkeen karrera profesional eredua eta jardunaren ebaluazioa ezartzea. Honek ekarriko dituen adiskidekeria eta menpekotasun jarreraren sustatzearekin, eta protesta jarreraren zigortzearekin.
- Negoziazio kolektiboaren eskubidea berreskuratzeko bermerik ez.
- Langile eta jendarte sektoreen parte hartzea ekiditea.
- ...

Gauzak horrela, LABek Mahaitik altxatzea erabaki du, bermeak eta sakontasun nahikoa izango duen eztabaida prozesua gauzatzeko baldintzarik ez duelako ikusten.

Gainera, gogora ekarri nahi dugu PNVk Jaurlaritzan sartu zenetik, **Mahai Orokorra azken urteetako murrizketa basatienei kobertura ematen saiatzeko baino ez duela erabili nahi izan**, 35 orduko lan astearen lorpen historikoaren aldebakarreko atzera botatzearekin egin bezala. Jada urteak daramazkigu Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean negoziazio errealik izan gabe. Horregatik, lan-astearen luzapenaren erabakiaren aurrean, sindikatu guztiok bertatik altxatzea erabaki genuen. Orduetik hona, **Estatu mailako sindikatuak mahaira bueltatu badira ere, ulertezina deritzogu ELA erakusten ari den jarrerari**. 200dik gora alegazio partzial aurkeztuta Jaurlaritzak planteatzen duen eztabaida mugatu eta interesatu horretan parte hartzeko jarrera erakutsi du. **Eremu pribatuan, negoziazio errealerako baldintzarik ez dagoenez, elkarrizketa sozialaren mahaian parte hartzeari uko egiten dioten bitartean, PNVk eskainitako sasi-negoziazio honetan alegazio partzialen eztabaidari heltzeak ez du inongo zentzurik**. **Aburtoren elkarrizketa sozialaren mahaia ez al da Zearretaren Mahai Orokorra eremu publikoan? Batean bilatzen duten kobertura soziala ez al da bestean ere bilatzen ari direna?**

Zentzu honetan, ELAri horrelako prozesuei alegazio partzialen prozeduraren bitartez babesik ez emateko deia luzatzen diogu berriro.

LABek, aurreproiektu honen edukiak eta PNV Jaurlaritzan erakusten ari den borondate negoziatzaile eza salatuz, **mobilizazio dinamika bati helduko dio hurrengo asteetan instituzio publiko guztietan, bai Eusko Jaurlaritzaren menpekoetan, baita aldundi eta udaletan ere**.



Info



> zerbitzu publikoak



¡No más fraudes al personal de los servicios públicos!

Por una ley del empleo público propia, participativa y democrática

Hoy se ha celebrado reunión de Mesa General de la CAPV. Se trataba un único punto, el anteproyecto de Ley Vasca del Empleo Público. Debemos recordar que el 11 de septiembre se celebró la primera de las reuniones en relación a esta ley, reunión en la que se nos presentaron las grandes líneas de los cambios que pretenden introducir con este anteproyecto.

Al principio de la reunión hemos participado los cuatro sindicatos con representación en el ámbito. LAB le puso a esta reunión un objetivo muy claro: aclarar si el Gobierno Vasco tiene voluntad de abordar un proceso de negociación sin condiciones fijadas de antemano; siempre, con el claro objetivo de definir una Ley de Empleo Público propia que dé respuesta a las necesidades de nuestro ámbito, y a nuestra realidad. Es decir, para LAB la reunión de hoy no era tanto de negociación, como de explorar si había o no unas condiciones mínimas para negociar.

Ante nuestro requerimiento, el Viceconsejero Andrés Zearreta ha dejado claro que este mal llamado proceso de negociación está totalmente condicionado: de una parte, se parte de **la aceptación del marco normativo estatal** que no sólo condiciona sino que determina prácticamente todo el contenido de la ley; y por otra parte, nos explican que son ellos quienes en última instancia **decidirán cuáles de las aportaciones realizadas se incorporan y cuáles no**, es más, no garantizan que en el caso de que el texto definitivo que presentarán en la próxima reunión no concitara un apoyo mayoritario de la parte sindical, vayan a paralizar su tramitación, con lo cual, es posible que aunque el texto definitivo no se refrende por la parte sindical éste sea trasladado al Consejo de Gobierno y el Parlamento Vasco. En este sentido, LAB no ve ninguna posibilidad ni voluntad de abordar un verdadero debate.

Lo único que tiene en mente el PNV es cómo adaptar el modelo estatal del PP a la comunidad autónoma. O si nos quedamos con sus palabras, cuando dicen que no es un desarrollo del EBEP sino una ley propia, nos encontramos con una negociación de **una versión a la vasca del mismo EBEP**. Se nos acusa de hacer un ejercicio irreal, pero desde nuestro punto de vista lo verdaderamente irreal es plantear que es posible elaborar una ley que recoja nuestra propia realidad desde la aceptación de los límites de la normativa estatal.

Además las líneas maestras que se proponen en el anteproyecto van justo en una

dirección diametralmente opuesta a lo propuesto por LAB:

- Pretenden trasladar el modelo gerencial del ámbito de las empresas privadas al ámbito público a través de la figura de la Dirección Pública Profesional.
- También se pretende trasladar la posibilidad de imponer EREs de la Reforma Laboral al ámbito de la administración pública.
- El modelo de carrera profesional y evaluación del desempeño con el que se pretende impulsar un reparto salarial de manera más arbitraria y desequilibrada. Con lo que va a suponer también en relación a fomentar actitudes de sumisión y enchufismos, y castigar actitudes críticas y de protesta.
- Ninguna posibilidad de conseguir un derecho de negociación verdadero.
- Evitar la participación de trabajadoras y trabajadores y de la ciudadanía en general.
- ...

Por todo ello LAB se ha levantado de la mesa, no vemos condiciones para abordar un verdadero proceso de negociación.

Además, hemos de recordar que desde que el PNV entró a gobernar Jaurlaritza, **no ha hecho otra cosa que intentar instrumentalizar la Mesa General intentando que fuera un espacio de cobertura a sus salvajes recortes**, tal y como hizo cargándose el logro social histórico de la semana laboral de 35 horas. Son ya muchos los años que llevamos sin una verdadera negociación en Mesa General. Por eso decidimos levantarnos de la mesa cuando se atrevieron incluso con la ampliación de la jornada. Desde entonces, **aunque los sindicatos de ámbito estatal hacía tiempo que decidieron volver a participar en esta mesa, en este caso estamos atónitos con la actitud demostrada por ELA**. Sólo con el mero hecho de haber presentado más de 200 alegaciones ha demostrado una disposición activa a participar en este debate totalmente condicionado e interesado. **Mientras en el ámbito de lo empresa privada, no participa en la Mesa de Diálogo Social al entender que no se dan condiciones para una verdadera negociación, se presta sin sentido ninguno, a participar con enmiendas parciales en este mal llamado proceso de negociación que ofrece el PNV, y que está totalmente amañado. ¿Acaso no es la Mesa de Diálogo Social de Aburto el equivalente a la Mesa General de Zearreta? ¿La cobertura social que se persigue en la primera acaso no es la misma que se persigue con la segunda?**

En este sentido, volvemos a hacer un llamamiento a ELA para que no legitime este proceso participando en esta dinámica de alegaciones parciales.

LAB pondrá en marcha una dinámica de movilización en todas las instituciones – dependientes del Gobierno Vasco, forales y municipales - durante las siguientes semanas, para denunciar los contenidos de este anteproyecto y la nula voluntad negociadora que el PNV está demostrando en el Gobierno Vasco.

